

HARREMANAK

Online enpresa bat izanik, zaila da aurrez aurreko harreman pertsonala bermatzea gure bezeroei, baina gaur eguneko teknologiek baliatuz ahalik eta harreman zuzenena eskaini nahi diegu.

Jada gureak diren bezeroekin, telefonoz zein bideodeien bitartez harremanduko gara, hauek horrela nahi izatekotan. Beraiek dituzten zalantza edo beharrak argitzeko modu eraginkorrena izango dela uste dugu. Horretarako enpresa zabalik dagoen ordutegian argitu ditzakete beraien zalantzak. Asteleheneik, Ostiralera 8.00-15.00ak bitartean.

Ordu hauetaz kanpo zalantzaren bat baldin badaukate, email bidez edo Whatsapp zerbitzua erabiliz kontaktatu dezakete gurekin, eta ahalik eta bizkorren erantzungo diegu. Gainera, harreman automatizatua ere izango dugu, erantzungailu automatiko baten bidez dituzten zalantza arruntak argitzeko eta web orrian "galdera erantzunen" atal bat gehituko dugu, gehien errepikatzen diren galderen erantzunak bertan ikusi ditzaten.

Gure bezeroak fidelizatzeko deskontuak egingo ditugu, bezero batek gure zerbitzua bitan erabiltzen badu, hurrengoan %10eko beherakada egingo diogu. Eta hirugarren hori erabiltzen badute 2 ordu dohainik oparituko diegu.

